

ALC^K

AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER
for Social and Political Studies



ETORKIZUNeko LIDERRAK PRESTAKUNTZA PROGRAMA 2019/2020

PROGRAMA FORMATIVO LÍDERES DEL FUTURO 2019/2020

IZENBURUA: KONTZERTU EKONOMIKOAREN INGURUKO IRITZI PUBLIKOA ETA

ETORKIZUNeko ERRONKAK

EGILEA: MIREIA GARAY ELEXPURU

AURKIBIDEA

| | |
|--------------------------------------|----|
| 1. SARRERA..... | 3 |
| 2. IRITZI PUBLIKOAREN ANALISIA | 4 |
| A) Inkesta | 7 |
| 3. ETORKIZUNeko ERRONKAK | 10 |
| BIBLIOGRAFIA | 11 |

1. SARRERA

Kontzertu Ekonomikoa gai zabala eta sakona dela esaterik ez dago. Orriak eta orriak bete izan dira horren inguruan. Dena dela, Kontzertu Ekonomikoari eta Foru Ogasunei buruzko iritzi publikoa historiografian oso gutxi ikertu da.

Dudarik ez dago Kontzertu Ekonomikoak garrantzi soziala eta unean uneko garrantzia duela. Nabarmendu beharra dago, garai hauetan Kontzertuak eta sistemak berak iritzi publikoan eta hedabideetan txitean-pitean azaldu dela, eta modan-modan egon den gaia izan dela. 2017 urte esanguratsua izan zen Kontzertuarentzat, berritzea eman baitzen. Horren harira orriak eta orriak bete zituzten egunkariak sistema beraren zilegitasuna kolokan jarritz; izan ere, Espainiako hainbat alderdi politiko Euskadiko sistema fiskala kentzearen alde azaldu dira, Ciudadanos kasu¹.

Halaber, hedabideen eta iritzi publikoaren boterea nabarmena da. Egun, informazioa azkartasun handiz heltzen zaie herritarrei, eta gero eta hedabide gehiago daude Internet dela medio. Hedabideak eta erabilitako kontzeptuak ez dira neutralak. Imajinario bat transmititzen dute eta iritzi publiko jakin bat sortzea laguntzen dute, nahiz eta argitaratutako iritzia eta publikoa ez duen beti bat egiten. Beraz, horren guztiaren eragina neurtzea beharrezkoa da, hala gizartearen nondik norakoak, nola gobernuen eta alderdien erabakiak hobeto ulertzeko.

Berebat, beste Autonomia batzuek, Katalunia esaterako, eredu edo irtenbide bezala ikusi dute Kontzertuaren sistema. Horregatik, hedabideetan eta iritzi publikoan askotan azaldu da erreferente bezala.

Ezin dugu ahaztu Kontzertu Ekonomikoa ez dela bakarka doan subjektua; Foru Ogasunak ditu bikotekide, azken horiek kudeaketa ekonomiko-fiskalaren arduradunak izanik; hots, sistemaren funtzionamendua bere gain hartzen dute. Horregatik, bereizketa hori kontuan hartu behar da, hau da, esandako kudeaketa ekonomiko-fiskala eta goitik beherako harremanak, beste era batera esanda, harreman juridiko-politikoak.

Iritzi publikoa aztertze aldera Ekonomi Itunaren eta Foru Ogasunen Dokumentazio Agiritegiko datu basea funtsezko baliabidea izan da. Datu base hori 2007tik etengabe elikatzen ari da, eta data horretatik gaur egunera arte gure ikerketarekin kidetuta dauden albisteak biltzen ditu. Horrela, 2008tik 2017ra arteko epea izan dugu aztergai. Hala ere, geroago ikusiko dugun bezala, herritarrek Kontzertuaren inguruan duten ezagutza biltzen


¹ Albín, Danilo. Rivera proclama la españolidad de Euskadi y promete acabar con el Cupo vasco [linean] Público. 2015 [azken kontsulta: 2018ko martxoak 4]. Eskuragarri: www.publico.es/politica/rivera-evoca-bilbao-espiritu-ermua.html

duen inkesta bat azaleratuko dugu, eta horrek guztiak bide emango du etorkizunean dauzkagun erronkei heltzeko.

2. IRITZI PUBLIKOAREN ANALISIA

Kontzertu Ekonomikoaren eta Foru Ogasunen albisteez urtez urte gora egin dute. Munduz mailako krisi ekonomikoak autonomien finantzazioa eztabaidagai ere bihurtu zuen. Hori dela medio, Kontzertuaren gaia bolo-bolo ibili da. Era berean, alderdi berriak sortu dira, eta Espainian egondako monotoniarekin apurtu dute eta ideia eta eztabaida berriak plazaratu dituzte. Ciudadanos alderdia, esaterako, hastapenetatik Kontzertu Ekonomikoaren aurka azaldu zen.


Ondoren dugun grafikoa horren adierazle da, eta egunkari bakoitzaren albisteen kopurua urtez urte adierazten du:



Espainiar estatuko egunkariei begira, esan beharra dago *El País* dela gehien idatzi duena; izan ere, euskal eremuak baino albiste gehiago ditu. Salbuespen horren arrazoietako bat da egunkari oso handia dela, eta horrek aukera ematen dio bezainbesteko baliabideak izatera: kazetariak, ekonomialariak...; hortaz, gaiari buruz idazteko aukera gehiago ditu. *ABC*k ere arreta nabarmena eskaintzen dio, baina *La Vanguardia* ez hainbeste. Horri dagokionez, azken urte hauetan, albisteen gorakada sumatu dugu; eta horrek, lehen esan bezala, autonomien finantzazioan du sorburu. Izan ere, azkenaldian Kataluniako buruzagiak etengabe ibili dira Kontzertu Ekonomikoa haientzat aldarrikatzen. Beraz, egoera hori ezinbestean Kataluniako egunkari honetan islatu da.

Horrela, kopuruak gora egin du, eta horretan Internetek eragina badauka. Analisia egiteko hautatutako egunkari guztiek badaukate Internet bertsioa. Ikusi izan dugun bezala,

tresna honek aukera handiak eskaintzen ditu, horien artean blogak sortzea. Hori dela eta, askotan gerta daiteke artikulua bat web bertsioan soilik argitaratuta egotea blog bateko izategatik. Horrek guztiak dakarrena da albisteen eta artikuluen gorakada.



Internetekin jarraiki, goiko argazkian² ikusi dezakegu nola gero eta erabiltzaile gehiago ditugun sare sozialetan. Horien bidez, edozein herritarrak mezu bat idatzi dezake eta milioika pertsonen ikus ditzakete. Twitterri³ begira, hainbat eta hainbat kontu daude Kontzertu Ekonomikoa pribilegiotzat jotzen dutenak, horren adibide dugu honako hau:

Pero siempre que se reconozca que es un privilegio de calibre a costa del resto de españoles.



Era berean, espainiartasuna adierazteko bandera jarri du bere mezuan, Espainia hitza

² Sánchez, J.M. Freno al crecimiento de Facebook: por primera vez pierde número de usuarios y la gente lo usa menos. 2018 [linean]:. ABC Eskuragarri: https://www.abc.es/tecnologia/redes/abci-facebook-frenazo-crecimiento-facebook-primera-pierde-numero-usuarios-201802010931_noticia.html

³ Virgala, E. [@eduardovirgala] (3 de diciembre, 2017). Entiendo que se defienda Concierto económico por ser el Enganche con España sin el cual el riesgo de catalanización de Euskadi sería muy elevado, pero siempre que se reconozca que es un privilegio de calibre a costa del resto de españoles. [Tuit]. Recuperado de: <https://twitter.com/eduardovirgala/status/937561882143219712>

idatzi beharrean. Horrekin diskurtsoari elementu bisuala ezarri nahi dio, arreta handiagoa izateko. Gainera, bere esanak argudiatzeko artikulua bat ere eranstean du.

Bestalde, mezu horiek eta prentsan idatzitakoak interes bati men egiten diote. Erabilitako lexikoa, errekurtsio diskurtsiboak.... Hartzailera konbentzitu nahi du. Horregatik, esan dezakegu ez direla neutralak eta iritzi publiko bat sortzera bideratuta daudela. Analisisian ikusi da, harreman juridiko-politikoari lotutako albisteak direla asmo hori daukatenak, ze Foru Ogasun eta Finantza Publikoen kudeaketarenak neutroagoak dira, ehunekoetan eta datu objektiboetan oinarritzen direlako.

Adibide gisa, El Correo egunkaria aipatuko dugu. Bertan, efektu erretorikoa aipatu beharra dago, erabiltzen duen adierazpena eragin emotiboa lortzera bideratuta dagoelako. Izan ere, erabilitako esaldiek aditzera ematen dute Kontzertuaren aldeko jarrera. Gainera, ondorengo adjektibo superlatiboak subjektibotasun kutsua adierazteaz gain, Kontzertuaren irudi positiboan eragiteko bideratuta

*Las fuerzas políticas vascas, que respaldaron por amplísima mayoría en la Cámara de Vitoria la máxima protección jurídica para nuestro valioso instrumento de autogobierno, deben hacer valer ahora esta situación.*⁴

Bestalde, ABC egunkaria aztertuta hainbat artikulua argitaratzen ditu blindatzearen harira, baita Kataluniak Kontzertua izateko duen nahiari buruz. Lehenengoari dagokionez, artikuluetako baten titularrak Zapateroren esanak kolokan jartzen ditu:

Zapatero prometió a La Rioja su oposición al blindaje vasco

Azpitituluak ere bere hitza bete ez zuela aipatzen du:

En enero de 2007, el presidente del Gobierno, José Luis Rodríguez Zapatero, se comprometió ante el presidente de La Rioja, el popular Pedro Sanz, a no apoyar cualquier actuación que propiciara el blindaje del Concierto Económico Vasco.

Albisteari zilegitasuna emateko errekurtsio bisualak ere erabiltzen ditu, hau da, Zapaterok Errioxako presidenteari, Sanzi, bidalitako gutuna. Horrez gain, albistean Zapaterok esandakoa hitzez hitz azaltzen du:

⁴ Merino, J; Arroyo, M: El Concierto Vasco en 20 preguntas. 2018 [linean]: <https://www.elcorreo.com/economia/140-anos-concierto-economico/concierto-economico-anos-20180228110900-nt.html>

“Te reitero la firme oposición del Gobierno de España a apoyar iniciativa alguna que pueda suponer un privilegio para cualquier ciudadano español en función de su territorio de residencia, cumpliendo así con el inequívoco mandato constitucional”.

Semantikaren ikuspuntutik, batik bat, albistea neutroa dela esan daiteke. Diskurtsoa aztertuz, egokitasun semantiko-proposizionala betetzen da, hau da, erabateko harremana dago argudio bezala emandako informazioan era argudio horren ondorioz emandako informazioaren artean⁵. Ideiak ere ondo antolatuta daude eta aurrekoa bezala, honek ere, efektu erretorikoa bilatu nahi du, hau da, garai hartan Zapatero presidentearen irudia zikintzea eta horrekin bat Kontzertuaren blindatzea erabat zilegi edo zuzena den zalantzan jartzea. Horretarako errekurtso bisualak eta protagonisten hitzak azaltzen ditu islatu nahi duen irudia are zilegiagoa izateko.

A) Inkesta

Hasieran esan bezala, lan honen helburuetako bat da iritzi publikoa bere osotasunean ulertzea. Horregatik, ezinbestekotzat jo da Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egindako azken inkesta ikertzea. Inkesta hori, 2013ko urrikoa, Eusko Jaurlaritzaren Prosprekzio Soziologikoen Kabineteak egin zuen. Hiru ardatzetan oinarritu zen; alde batetik, EAJ-PNVren eta PSEE-EEren arteko ituna; bestetik, Kontzertu Ekonomikoa; eta, azkenik, Gizarte politika. Gu, jakina denez, Kontzertu Ekonomikoan oinarrituko gara. Gai hori hiru atal nagusitan banatzen ditu: Kontzertu Ekonomikoaren ezagutza, garrantzia eta eragina.

Dena dela, horri hasiera eman aurretik, horren aurrekariei aipamen berezi bat eskainiko diegu. Horren harira, Victor Urrutiak ⁶ adierazten du sozialki ez dela erreza Kontzertu Ekonomikoaren agerikotasuna. Horrez gain, argudiatzen du gizarteak aspektu teknikoan jakintasuna ez izateak, ez dakarrela Kontzertuaren garrantziaz ez jabetzea. Horrela, Kontzertuaren inguruko pertzepzioa jasotzeko galderak errazak eta ulerkorrak izan behar direla proposatzen du.

Autore berberak erakusten digu, Kontzertuaren inguruko ezagutza, 1999tik 2010era arteko tarte hartuta, altuagoa izan zela 2002an; izan ere, Kontzertuaren negoziazioak izan ziren. Halaber, adinak ere zeresana dauka; izan ere, gazteenak dira, hau da, 18-29 urte artekoak, ezagutza mailarik baxuena daukatena.

⁵ Sebastián Sayago. “El análisis del discurso como técnica de investigación cualitativa y cuantitativa en las ciencias sociales.” *Cinta Moebio* 49, (2014): 7.

⁶ Victor Urrutia in *Haciendas Forales: 30 años de Concierto Económico y Perspectivas de Futuro*. Bilbao, Ad Concordiam, 2011; 115-131

Negoziazioen epea igarota, albisteen kopuruaren beherakada egon zen. Adierazgarri den beste alderdi bat da kompetentzia fiskalen ingurukoa. 2008 eta 2010eko inkestek adierazten dute oraindik gizarteak ez dituela Aldundiak zerga bilketarekin kidetzen.

Horretatik eta inkestaren gainerako datuetatik honako hau ondorioztatzen du Urrutiak:


- Kontzertu Ekonomikoaren inguruko ezagutza erlatiboa.
- Gizarteak gero eta garrantzi handiagoa ematen dio sistemari.
- Herritarrek Kontzertuarekiko duten ezagutza eta interesa gora egin zuen 2002an, eta negoziazioak amaitu ahala, behera egin zuen.
- Gainerako Autonomiekin aldaratuta, iritzirik nabarmenena, baina ez nagusiena, izan da euskaldunak oso onuradunak edo nahiko onuradunak izan garela Kontzertu Ekonomikoaren bitarteko finantzazioa dela eta.
- Kompetentzia fiskalen ezagutzari dagokionez, zalantza azaltzen dela adierazi da.

Horregatik, ezinbestekotzat jo da Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egindako azken inkesta ikertzea. Inkesta hori, 2013ko urrikoa, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egin zuen. Hiru ardatzetan oinarritu zen; alde batetik, EAJ-PNVren eta PSEE-EEren arteko ituna; bestetik, Kontzertu Ekonomikoa; eta, azkenik, Gizarte politika. Gu, jakina denez, Kontzertu Ekonomikoan oinarrituko gara. Gai hori hiru atal nagusitan banatzen ditu: Kontzertu Ekonomikoaren ezagutza, garrantzia eta eragina.

1. Ezagutza

Ezagutzari dagokionez, bi galdera planteatu ziren. Lehenena, *entzun duzu ezer Euskadiko kontzertu ekonomikoaz?*; eta, bigarrena, *zein puntutaraino ezagutzen duzu bere edukia?*

Entzun duzu ezer Euskadiko kontzertu ekonomikoaz?



Grafiko honek aurreko 2008ko inkestarekin konparaketa egiten du. Ikusi daitekeen bezala, ez da aldaketa handirik nabaritzen; izan ere, emaitzak berberak dira *Bai* hori izan ezik. Horretan puntu bateko igoera baino ez da izan. Beraz, bost urte pasatzeaz gain, ezagutza bere horretan mantendu zela esan genezake.


Adinari erreparatuz, gazteenak dira gutxien entzun dutenak eta 46-54 urte bitartekoak, aldiz, gehienak.

Zein puntutaraino ezagutzen duzu bere edukia?

Honetan ikusi daiteke nola, *ezer ez erantzun dutenak asko erantzun dutenak baino gehiago diren*. Dena den, ehuneko handiena edukiaz *zerbait* dakitenak dira.

2. Garrantzia

Atal honetan galdera bakarra planteatu da: *zure ustez, zenbateko garrantzia du kontzertu ekonomikoak euskal autonomiarentzat?*



Ikusi daitekeen bezala, gehienak uste du Kontzertuak *garrantzi handia* daukela, zehazki %55ak. 2008ko inkestarekin aldaratuz, esan daiteke aldaketak gehiago direla aurreko atalarekin konparatuta. Aldaketa horietan nabariena, dudarik gabe, garrantzi handia adierazi dutenena da; izan ere, 2008tik 2013ra 10 puntuen arteko desberdintasuna egon da.

3. Eragina

Atal honetan ere galdera bakarra planteatu zen, soilik Euskadiko Kontzertu Ekonomikoaz ezer entzun zutenei egin zitzaien. Galdera honako hau izan zen: *oro har, zure inpresioa da kontzertu ekonomikoak euskal autonomia erkidegoko herritarrentzat oso mesedegarria, nahikoa mesedegarria, nahikoa kaltegarria edo oso kaltegarria dela?*

Pertsona gehienak adierazi du *nahikoa mesedegarria* dela. Esanguratsua da tarte handia dagoela bigarren aukerarekin, hau da, oso *mesedegarriarekin*; izan ere, 34 puntuko aldea dago.

Azkenik, inkestak argi eta garbi erakusten du albisteen gorakadak ez datorrela bat gizartearen ezagutzaren gorakadarekin. 2008ko inkesta 2013ko inkestarekin konparatuta igoera nabaritu da, baina esan bezala igoera oso motela dela ikusi dugu, eta erditik gorakoa bada ere, %62koa, hain zuzen ere, ezagutza handia ez dagoela esan daiteke.

Nabaritzekoa da euskal gizarteak ez diola garrantzi handirik ematen kontzertuari. Egia da aurreko inkesta ikusita datuak hobeak direla Kontzertuarentzat, baina oraindik ez zaio behar besteko garrantzirik ematen, eta hori ez jakintasunagatik da. Dena den, esan bezala, aurreko inkestarekin konparatuta igoera nabarmentzen da, eta igoera horren arrazoietakoa bat da hedabideetan Kontzertuaren garrantzia nabarmendu dela eta horren inguruan sortu diren liskarrak irudi hori helarazi diotela gizarteari.

3. ETORKIZUNEN ERONKAK

Aurretik ikusi izan dugun bezala, kontzertuaren ezagutza oso erlatiboa da, eta batez ere, gazteen artean. Hori dela eta, etorkizunari begira funtsezkoa da hezkuntza planetan fiskalitateari eta gure sistema ekonomikoari buruzko ikasgaia txertatzea. Europa eta mundu mailan badira horrelako programak. Suitza adibide hartuta, hezkuntza sistemako azken ikasturteetan eta lan munduan sartu berri diren pertsonentzat bideratutako programa bat du. Programa hori Zerga Administrazioak antolatzen du, eta herrialdeko sistema fiskala ezagutaraztea du helburu. Horrelako egitasmoak aintzat hartuta, hezkuntza sistemak berak sortutako ikasgaia sustatu beharko litzateke, Lehen Hezkuntzatik hasita, unibertsitatea barne. Azken batean gurea defendatzeko lehenengo ezagutu beharra daukagu. Hori guztia Agirre Lehendakaria Centerrak bultzatzen duen "K" (Kultura) faktorearekin erabat lotuta dago, ezagutza horrek gure gizarteak bizi izan duen eta biziko duen transformazioa ulertzen lagunduko baitigu.

BIBLIOGRAFIA

Albín, D. Rivera proclama la españolidad de Euskadi y promete acabar con el Cupo vasco [linean] Público. 2015 www.publico.es/politica/rivera-evoca-bilbao-espiritu-ermua.html

Barrado, S. Zapatero prometió a La Rioja su oposición al blindaje vasco [linean] ABC. "2010 https://www.abc.es/espana/abci-zapatero-prometio-rioja-oposicion-blindaje-vasco-201005030300-140118138573_noticia.html

Ekonomi Itunaren eta Foru Ogasunen Dokumentazio Agiritegia. http://www.ehu.eus/ituna/cgi/ituna.pl?h=eu&z=p&p=3353&id=29540&t=15764_82959090

Merino, J; Arroyo, M: El Concierto Vasco en 20 preguntas. El Correo. 2018 [linean]: <https://www.elcorreo.com/economia/140-anos-concierto-economico/concierto-economico-anos-20180228110900-nt.html>

Prosprekzio Soziologikoen Kabinetea. *EAJ-PNVren eta PSE-EEren artekoituna, Kontzertu Ekonomikoa eta gizarte politika*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2013.

Sánchez, J.M. Freno al crecimiento de Facebook: por primera vez pierde número de usuarios y la gente lo usa menos. 2018[linean]: ABC https://www.abc.es/tecnologia/redes/abci-facebook-frenazo-crecimiento-facebook-primera-pierde-numero-usuarios-201802010931_noticia.html

Sebastián Sayago. "El análisis del discurso como técnica de investigación cualitativa y cuantitativa en las ciencias sociales." *Cinta Moebio* 49, (2014).

Victor Urrutia in *Haciendas Forales: 30 años de Concierto Económico y Perspectivas de Futuro*. Bilbao, Ad Concordiam, 2011